



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko martxoaren 27a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie ALCER Navarra elkarteari eta transplante bat behar duten gaixo guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Miren Peñaren familiari eta lagunei bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkie. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eraiki ditzan Hegoalde Ikastolako patioaren estalkia eta gimnasia sarbide-arrapala bat. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen gainekoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduaren betetze-mailari buruzkoa. Marisa de Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, hutsik dauden alokairuzko etxebizitzetarako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Iruñeko Alde Zaharreko osasun etxeko pediatria zerbitzuetarako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie ALCER Navarra elkarteari eta transplante bat behar duten gaixo guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko martxoaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die ALCER Navarra elkarteari eta, oro har, gaixotasun kroniko bat daukaten gaixo guztiei eta bizitzen jarraitzeko edo beren bizi kalitatea hobetzeko transplante bat behar duten gaixo guztiei.

2. Halaber, emaille guztiei eta beren senitartekoei eskertu egiten die bizitzan nahiz bizitzaren ondoren egin daitekeen eskuzabaltasun eta elkartasun goreneko jokabide hori.

3. Gisa berean, babestu egiten dugu gaixotasun horren eta gaixotasun horrek gaixoei nahiz beren familiei dakartzkien beharrizanen berri ematea, organo-ematearen premiari eta beharrizanari buruz sentsibilizatzeko eta gogorarazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako gizar-teari dei egiten dio bat egin dezan organo-ematearekin, gizakien arteko eskuzabaltasun-ekintzarik handiena dela jotzen den jokabide altruista horrekin”.

Iruñean, 2015eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Miren Peñaren familiari eta lagunei bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkie.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko martxoaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten dizkie Antsoaingo bizilagun eta Faureciako langile ohi Miren Peña Rastaloren familiari eta lagunei, eta orobat adierazten ditu bere tristura eta nahia, beste inork ere ez dezan egoera hori paira.

2. Nafarroako Parlamentuak uste osoa du Mirenen heriotza zor zaiela sistema ekonomiko bidegabe bati eta Miren erabateko babesgabatasun-egoera batean utzi duen lege-esparru bati. Nafarroako Parlamentuak irmoki salatzen du e-

txegabetzeak ahalbidetzen dituzten finantza-entitateen jokabidea, eta adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak har ditzan, pertsona guztiei etxebizitza duin baterako eskubidea bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa eta urgentea dela Gobernu zentralak erretira dezan Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko 24/2013 Foru Legearen aurka Konstituzio Auzitegian jarrita daukan errekurtsua, eta adierazten du beharrezkoa dela foru lege hori berehala indarrean sartzea.

4. Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko du lan-erreforma, zeinak aukera handiagoak

ematen baititu langileak libreki kaleratzeko, Miren Peñaren kasuan bezala. Kasu jakin honetan, orobat salatzen du Faurecia enpresak bere langileekin izandako jarrera".

Iruñean, 2015eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eraiki ditzan Hegoalde Ikastolako patioaren estalkia eta gimnasiorako sarbide-arrapala bat.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015eko martxoaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eraiki ditzan Hegoalde Ikastolako patioaren estalkia eta gimnasiorako sarbide-arrapala bat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz eraiki dezan, horre-

tarako jada prestatuta dagoen tokian, Hegoalde Ikastolako patioaren estalkia, patio zaharretik lekualdatzeko proiektuan jasota zegoena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hegoalde Ikastolako gimnasiorako sarbide-arrapala bat urgentziaz eraiki dezan, haren irisgarritasuna mugikortasun murriztua duten pertsonen beharren arabera egokitzeko".

Iruñean, 2015eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen gainekoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriak honako hau dio: "*Osasun Departamentuak, urtebeteko epean, azterlan bat eginen du foru lege honetan ezarritakoaren betetze-mailari buruz eta, bereziki, Nafarroako herritarrek hura dela eta erakusten duten gogobetetze mailari buruz. Azterlana bi urtez behin gaurkotuko da, foru lege honen aplikazioa eta eraginak erregulartasunez ebaluatu ahal izateko*".

Legearen lehenengo xedapen gehigarri hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Egin al da 2011n onetsitako legeak agintzen duen azterlana?

– Zein da azterlan horren emaitza?

– Azterlan hori bi urtean behin eguneratu al da, legeak agindutakoari jarraikiz? Legearen bigarren xedapen gehigarriak honako hau dio: "Osasun Departamentuak, lege honek indarra hartu eta gehienez ere bi hileko epean, behar diren tresnak ezarriko ditu foru lege honi ahal den zabalpen handiena emateko profesionalen artean eta, oro har, herritarren artean".

Horri buruz, hauxe jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak zer tresna ezarri ditu 2011ko Foru Lege horri ahal den zabalpen handiena emateko profesionalen artean eta, oro har, herritarren artean?

Beste galdera batzuk:

– Lege horren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak behar diren neurriak sustatuko dituzte Nafarroako Osasun Sistema Publikoan zainketa aringarrien unitateen eta euskarri-ekipoen kopuru eta dotazio egokiak egon daitezen, eta ekitatea bermatuko du herritarrek haietarako sarbidea izatearen arloan, edozein dela ere herritar horien bizitokia. Zer neurri ezarri dituzte Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak?

– Legeak ezarri zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hiru hilabeteko epean sustatuko zuela, legea indarrean sartzen zenetik aitzina, oinarritzko osasun laguntzaren arloko osasun laguntzaren etika batzordea sor zedin, eztabaida eta gatazka eragiten dituzten gai etikoetan aholkua eta laguntza bermatzeko. Eratu al da batzorde hori?

Iruñean, 2015eko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduaren betetze-mailari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduaren betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Iritsi zaigun informazioaren arabera, Nafarroako Ospitaleak ezetza eman die beste autono-

mia erkidego batzuetan ikasten ari diren medikuntzako ikasleek praktikak egite aldera egin dituzten eskabideei.

Urriaren 23ko 467/2001 Foru Aginduak, zeina 2001eko azaroaren 12ko NAOan argitaratu baitzen, honako hau ezartzen du:

Lehena.- Graduatu aurreko edo ondoko ikasketak Nafarroatik kanpoko Fakultate eta Unibertsitate Eskoletan egiten dituzten ikasleek eta, berdin, berariazko hitzarmenik ez duten Nafarroako ikasleek ere prestakuntza curriculumetan eskatzen diren praktikak Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen menpeko osasun zentroetan egiten ahalko dituzte, Osasun Departamentuko zuzendari nagusiaren baimenarekin, Foru Agindu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen badute.

Idatzizko galdera:

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zenbateraino bete du foru agindu hori?

Osasun Departamentuaren mendeko osasun zentroetan praktikak egiteko zenbat eskabideri eman zaio ezetza? Zergatik?

Iruñean, 2015eko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, hutsik dauden alokairuzko etxebizitzetarako buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hutsik dauden alokairuzko etxebizitzetarako buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 16ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra taldeko foru parlamentari Txema Mauleón jaunak Nafarroan hutsik dauden etxebizitzetarako buruzko informazio eskaera egin du, jada emandako informazio baten osagarri gisa (PES-2). Hona Sustapen Departamentuaren erantzuna:

10/2010 Foru Legearen arabera, hauek dira alokairu sistema publikoaren barrenean sartzen diren etxebizitzak: errentamendu kontratu ikusonetsia duten etxebizitzak, Alokairu Poltsan sartuta dauden etxebizitzak eta emantzipatzeko oinarritzko errenta hartzen duten gazteek edo funts publikoekin finantzaturiko beste alokairu programa batean parte hartzen duten pertsonen errentan hartzen dituzten etxebizitzak.

Informazio eskaera honetan aipatutako 270 etxebizitzetarako datua departamentu honek aurretik emandako beste informazio batetik hartu da. Orduko hartan Izquierda-Ezkerrak beste galdera bat egin zuen (PEI-00347), jakiteko ea babes ofizialeko alokairurako etxebizitzetarako zenbat ziren enpresa pribatuak.

Alokairu sistema publikoko etxebizitzetarako hutsen kopuruak dakartzan taula eguneratua erantsi dugu:

ALOKAIRU BABESTUA NAFARROAN: 2014ko AZKEN HIRUHILEKOA

	Etxebizitza kop.	Beteak	Hutsak	Hutsen ehunekoa
Etxeb. Babestuen sustatzaileak	3.271	3.001	270	% 8,25
Nasuvinsa, etxeb. Babestuak	988	931	57	% 5,77
Etxeb. Babestuak, guztira	4.259	3.932	327	% 7,68
Nasuvinsa, alokairu poltsa	490	482	8	% 1,63
Alokairu sistema publikoa, guztira	4.749	4.414	335	% 7,05

Etxebizitzak hutsik egotearen arrazoi nagusiak iragankorrak edo behin-behinekoak izaten dira, alokairua kudeatzeko prozesuak berak eragindakoak (bajen izapideak, obra edo konponketak, kontratu berrien kudeaketa), eta beste kasu batzuetan iraunkorrak dira: etxebizitzak dauden herrietan eskaririk ez izatea, esaterako.

1. Abenduaren 24ko 27/2014 Foru Legea

Abala eta lurraren kontribuzioa: arauaren muiari erreparatuta, eta interpretazioaren inguruan sortutako zalantzak ebazteko –abalik ez eskatzearena enpresa publikoek sinatutako kontratuetarako soilik ote den, abal terminoa erabili behar

ote den ala berme osagarriak, hala nola eskudirugordailua, kuzio-asegurua edo bestelakoak, edota lurraren kontribuzioa ordaintzera behartuta dagoen subjektua kontratu indardunei aplikatzeari buruzko zalantzak–, Foru Administrazioak mezuak bidali dizkie errentamenduak sustatzen dituzten enpresa publiko edo pribatuei, informazio gisa eta gogora ekartzeko abenduaren 24ko 27/2014 Foru Legea aplikatu behar dela, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera. Halaber, Twitter bidez erantzun zaie gai honi buruz galdetu duten herritarrei, honako irudi honetan ikus daitekeenez:



Abal terminoari dagokionez, ulertzen ari da halakorik ez eskatzearena bai enpresa publikoetara bai pribatuetara hedatzen dela, biak daudelako 10/2010 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian deskribatutako alokairu publikoko sisteman, eta baita Hiri Errentamenduei buruzko Legean jasotako nahitaezko fidantzaren osagarri diren berme mota guztietara ere, abala izan nahiz eskudiru-gordailua, aseguruia edo beste zernahi izan. Horrela ari da interpretatzen, eta, ildo horretatik, aldatu eginen da uztailaren 3ko 87/2012 Foru Agindua, Sustapeneko kontseilariak emana, etxebizitza babestuen salerosketa, eskuratze, esleitze edo errentamendu kontratuetan, erosteko aukera izan edo ez, nahitaez jaso behar diren klausulak ezartzen dituen (2013ko uztailaren 31ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala; okerren zuzenketa 2013ko abuztuaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean).

Lurraren kontribuzioa dela eta, udal zerga horren zergaldia urte naturala denez (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua), ulertu behar da Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen hamalagarren xedapen gehigarri berrian ezarritakoa urte honetatik aurrera

aplikatu behar zaiela kontribuzio horren ordainketa eta etxebizitza babestuen alokatzeko kontratu guztiei, noiz egin diren kontuan hartu gabe.

Nahiz eta goian azaldutakoa ez zuten horrela interpretatu etxebizitza babestuen errentamenduen kudeaketan esku hartzen duten agente guztiek, Sustapen Departamentua horrelaxe ari da egiten aldaketa, Parlamentuak onetsitakoa abenduaren 24ko 27/2014 Foru Legea onestean, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, etxebizitza arloko jarduketan babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitza Erregistro Orokorra sortuz.

Errentamendu kontratuak esleitu eta berritzeari dagokionez, herritarrek neurri horretaz baliatzeko eskaerak aurkeztu ahala aplikatuko da. Orain arte ez da eskaerarik aurkeztu. Araua gutxi erregulatuta dagoenez, hura aplikatzeko behar diren administrazio irizpideak ezarri joanen dira, azaltzen diren kasuen arabera.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 30ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Iruñeko Alde Zaharreko osasun etxeko pediatria zerbitzuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko Alde Zaharreko osasun etxeko pediatria zerbitzuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 16ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: "Iragan urtarrilaren 2an, Alde Zaharreko osasun etxeak ezin izan zuen pediatria-eskaririk artatu, ez zegoelako horretarako profesionalik. Zentrotik bertatik gomendatu zieten gurasoei larrialdi zerbitzuetara joan zitezen, beste masifikazio-iturri bilakatuz hartara bere funtzionamendua definizioz beste modu batera taxututa daukan zerbitzu batentzat. Halaber, zentroak atzeratu eta berrantolatu egin behar izan zituen egun horretarako aurreikusita zeuzkan hitzordu arrunt guztiak, eta beste egun baterako utzi. Zoriturrez, ez da hori gertatzen den lehen aldian, 2014an zehar beste horrenbeste gertatu delako zenbait alditan."

(8-15-PES-00001). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zer dela-eta gertatu da ustekabeko hori Alde Zaharreko osasun etxeko Pediatria Zerbitzuan?

Arrazoi bakarra izan zen pediatrik osasun etxera deitu zuela, larri zegoen ahaide bat presaz ospitaleratu beharra zutela eta. Langileria arloan beste pediatria baten bila hasi ziren, baina ez zuten inor aurkitu egun horretan Alde Zaharrera lanera etortzeko moduan. Beste pediatria Iruñetik kanpo zebilen eta, beraz, ezin izan zitzaion deitu etortzeko. Orkoienean lanaldi erdia egiten duen pediatriari deitu zitzaion, baina egun horretan ezin zen Alde Zaharrera lanera etorri, eta 5ean etortzekotan gelditu zen.

Osasun Departamentua Pediatria Zerbitzuen funtzionamendua normalizatu bat ziurtatzeko moduan al dago?

Bai. Alde Zaharreko populazio pediatrikoa 1.442 haur dira (2014ko azaroko banakako osasun txartelen kopurua), eta plantillako 1,5 pediatrik artatzen dituzte.

Honako hau da Alde Zaharrerako erabiltzen dugun ordezkapen taula. Ikus daitekeenez, Gabonetan pediatria ongi planifikaturik egon da; estaldura teorikoa baino are handiagoa izan du.

2014	Alde Zaharra	Ordutegia	Estaldura (%)	Kointzidentziak	Oharrak
Medikuntza	8	Goizez	0	200 ordu	
Pediatria	1	Goizez	70		
	0,5	Goizez	0	14 ordu	
Erizaintza	3,5	Goizez	0	212,5 ordu	
	1,5	Pediatriako eriz.	70		
Harrera	5		70		Urtean 5 egunetan izan ezik, langile bakoitzeko
Gizarte lana	1		0		

Departamentuak zer prozedura darabil osasun etxeetan pediatriako langileen bajak eta ordezkapenak betetzeko?

Medikuen (pediatrik barne), erizainen eta administrariaren operretarako ordezkapen irizpideen arabera, gutxienez plantillaren % 50 egon behar da zentroan.

Departamentuak ba al dauka ordezkopediatriaren zerrendarik?

Bai.

Beste zer osasun etxetan gertatu da pediatriako kasuak beste zentro batzuetara desbideratu behar izatea langileak ordeztu ezin izateagatik?

Bakar batean ere ez. Artapena ez da desbideratzen. Urtarrilaren 2an osasun etxean hitzordua kendu zitzaien berrikuspen, osasun-azterketa eta horrelakoetarako hitzordua zuten haurrei. Ezustean gertatutakoa azaldu zitzaien, eta jakinarazi zitzaien osasun etxeak edozein larrialdi estali-

ko zuela familia-medikuen bitartez, horretarako gaitasun osoa baitzuten. Ez ziren gaixoak osasun etxetik larrialdietara desbideratu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko otsailaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

